


3 FASEA (ekainaren 8tik aurrera)

Ostalaritzaren irekierako baldintzak:



Ostalaritza establezimenduetako barnea eta kanpoko terrazak erabili daitezke. Mahaien edota mahai-taldeen artean, gitxienez, 2 metroko tarte mantentzen dala bermatu beharko da. Lokalaren barran kontsumitu ahalko da, beti be, pertsonen edota persona taldeen arteko 2 metroko distantzia zainduz.



Mahai edota mahai-talde bakotzeko gehienezko persona kopurua 20 lagunekoa izango da. Mahai edota mahai-talde bakotxa, jarri daitezkezan persona kopuruaren arabera egokitutakoa izan beharko da, beti be, pertsonen arteko gitxienezko segurtasun distantzia mantentzea bermatuz.



1 eta 2 taldeko tabernek udal araudian ezarritako ordutegia izango dabe. 3 eta 4 taldeko tabernek berriz, 2 taldeko establezimenduen ordutegia bete beharko dabe. Terrazen ordutegia udal araudian ezarritakoa izango da.

Babes eta higiene neurriak:



Erabiltzaile batek/batzuk terraza erabili eta beste bat/batzuk jarri bitartean, terrazako ekipamenduen garbitasun eta desinfekzio lanak egin beharko dira; bereziki aulki, mahai eta bestelako kontakturako gainazalena



Erabiltzaileen eskura jarri beharko dira hidrogel edota desinfektante banagailuak.



Erabilera anitzeko kartak erabiltea saihestuko da gailu elektronikoak, arbelak, kartelak edota beste baliabide batzuk hobetsiz.



Zerbitzu- baliabideak (plater eta bestelakoak, kristaleria, mahai-tresnak, mantelak, etab.) itxitako guneeetan gordeko dira. Hori posible ez dan kasuetan, bezero eta langileak dabilzan guneeetatik aparte gordeko dira.



Autozerbitzurako produktuak (musuzapi-banagailuak, zotz-ontziak, ozpin eta olio-botilak...) kendu egingo dira eta erabilera bakarreko formatuak hobetsiko dira. Posible ez dan kasuetan bezeroek behar dauan kasuetan soilik erabiltzeko zerbitzuak eskainiko dira.



Establezimendu eta lokal guztiek eduki beharko dabez sastar-ontziak, ahal dala tapa eta pedaldunak, eurretan zapi eta bestelako erabili eta botatzeko gauzak bota ahal izateko.



Bezeroek establezimenduetako komunak erabili ahalko dabez. Komun gehienezko okupazioa persona bakarrekoa izango da, salbu laguntza behar daben erabiltzaileen kasuetan. Establezimenduetako komunak, gitxienez, egunean 6 aldiz garbitu eta desinfektatu beharko dira.